

Gozoak eta gorriak



Jakoba Errekondo

Uda eta negua omen ditugu urteko sasoi bakarrak. Berritzen denetik azkenera iristen den arteko uda luzea, eta negua. Garai batean, agian, sasoiak lau izan behar zutela esango zuen norbaitek –ilargiarekin gertatutakoaren antzeratsu?– eta uda-negua zena udaberri-uda-udazken-negu bihurtuko zen. Txakurra nagusiari estekatzen den bezala, adimena hizkuntzaren erraztasunari kateatzea hariketa polita da. Neronek ere gustuko dut. Sasoiak gai honekin, ordea, nire iritzia ez da hain arina.

Gure garaira egokitzeke hariketa egin behar, agian... Luzerako emango lukeen gaia da, baina, nire ustez, gaur egun bi aro ditugu: gozoa eta gorria. Udaberri gozoa, uda gorria, udazken gozoa, negu gorria... Hau da, gozo-gorri-gozo-gorri-gozo-gorri... bizi ditugu.



Lehen uda izango zen gorria eta negua beltza. Gorriak ikusteko udan eta beltzak neguan. Egun, beltza gorriara moteldua dugu.

Gozoetan, gozo hezea eta gozo lehorra ditugu. Gozokietan bezala, alegia: bizkotxo lehorrak eta mozkortuak edo bustiak. Gozo hezea da udaberria, lehorra, berriz, udazkena. Alde horretatik tropikala da geure ingurune atlantikoa; sasoi lehorra eta euriteen sasoiak besterik ez dituzte tropikoetan.

Eta zer datorkigu? Behin eta berriz zirri eginagatik etxekoa ez denaren tratu ematen diogun klima aldaketa dela medio, zer datorkigu? Hipotesiak zientzialarientzat utzita, hona nire bi uste: Karibeko Golkoko itsaslasterra moteltzearen eraginez negua erabat belztuko da, edo uda belztuko da. Bietako edozeinetan, sasoiategi berria proposatzen dut: egungo gozo lehorrari neguberria, negua, neguazkena gozo hezeari eta uda. ■



Haltza

Erreka, ibai edo errio, bazterrean hazi da haltza, *Alnus glutinosa*. Erriberan uraren emanak ekarritako mausar, legar, hondar, errekarri eta harribili izan ditu sustraian lagun. Jaio eta errotu zen, zainak haien artean sigi-sagan hazten ziren artean. Luza eta luza, lur harroan zuhaitzari eusteko. Uholde bakoitzean balantzaka ibiliz lurrari eusteko grina luzatuz... Azkenekoa iritsi zen arte. Hark bere onetik, bere lurretik atera zuen arte. Eta urak sustraia txikitu, eta eraman. Itsasoari hondarretan eman arte. Horra haltza-rena zena, sigi-sagan hondarretan, gorri. Haltza beti gorri.

BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea · [@bizibaratzea](https://twitter.com/bizibaratzea)

EGUBERRITARAKO OPARIA

LIBURUA ETA ILARGIAREN EGUTEGIA

Salneurria: 23 €
Harpideentzat: 19,50 €

ARGIA n lurrak lantzeko lanabesak eskuratu ditzakezu: *Bizi Baratzea* liburua eta 2016ko Ilargiaren Egutegia. Usurbilgo Alkartasuna Kooperatibarekin elkarlanean atera dugu egutegia Pello Zabala akeratutako esae-ekin. Hilero lan nagusiak, ilargiaren kokape- na eta egutegi biodinamikoaren arabera eguneroko joerak azaltzen ditu.



AURKEZPEN HITZALDIAK

Hauek dira ondorengo hitzorduek:

Urtarrilak 15

Ataun (Aia)

Haitzarri elkarte, 19:00etan.

Urtarrilak 20

Bilbo

Kafe Antzokian, 10:30ean eta
19:00etan.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar
duzun informazioa eskuratu duzu

sustapena@argia.com

📞 943 371 545

NOIZKO EUSKALDUN GUZTIAK ERRETIRATUKO GAITUEN ONDDO BELTZ HIDROPONIKOA?



KOMIKILARIAK ERREKONDORAREN KONTSULTAN

Onddoak beste edozein jaki bezala basaka edo makatza bada hobe. Barazkiak, animaliak, arrainak... dena etxekotu eta itxiturretan, karioletan, hidroponikoan... azken beltzean kartzelatan hazten ditugu. Gero ahasabaian zer gustu utziko digute ba? Honela elikatzen ditugu gure gorputza eta arima.

Makatza den edozer, baita onddoak ere, etxekotuko bagenitu, ez lirateke, inolaz ere, berdina izango. Ezin da berak hazten diren ekosistema osotasunean kopiatu, eta gutxiago hidroponikoan. Nik ez nuke horrelakorik jango. Eta merkezurtekoak izango liratekeen, jangai exkax bat bezala ikusiko genuke, orain txanpinoiekin edo barregorrieekin gertatzen den bezala.

Mendira joan, onddo edo perretxiko basatiak bildu, sukaldean prestatu eta jatea bezalako plazer gutxi ezagutzen dut mundu honetan. Gaur bertan bildu ditut galanperna eder batzuk, sekula jangabeko lagun batzuek dastatu dituzte eta haien aurpegia ikustekoa zen...

Jakoba Errekondo